

Jaizkibel

Ikastetxe Nagusi berria

2016 Urr 25

Urriaren 5ean Jaizkibel Ikastetxe Nagusiaren hasiera-emate ofiziala ospatu zen. Ikastetxea garai bateko Aldama Jauregian kokatzen da.

Hasierako aurrekuak ongi etorria eman zien bertan zeuden agintariei,

Bakartxo Tejeria, Eusko

Legebiltzarraren Lehendakaria;

Eneko Goia, Donostiako alkatea;

Imanol Agote Alberro, Eusko

Jaurlaritzako Kultura Ondarearen

zuzendaria; **Alfonso Sánchez-Tabernero**, Nafarroako Unibertsitateko errektorea; **Tomás Gómez Acebo**, Nafarroako Unibersitateko Ikasleen errektoreordea; eta **M^a Jesús Álvarez** Jaizkibel Ikastetxe Nagusiko zuzendaria.

Ikastetxeko zuzendariak **Jaizkibel urte honetan hain zuzen, Donostia 2016ean, sortzen dela azpimarratu zuen, hiriko kultura hizketaldira batzeko nahian, topaketa, irekitze, elkarrizketa moduan**. Eneko Goia alkateak Ikastetxe Nagusiaren sortzea dela eta, bere poza adierazi zuen, **hiriak mundura irekitzeko eta ezaguera hiri bat izateko duen gogoari laguntzen baitio**.

Nafarroako Unibertsitateko errektorea, Alfonso Sánchez-Tabernero, lehenengo promozioari zuzendu zitzaion, aitzindari deituz, eta hiriaren taupada berak sentitzea

bultzatuz, bere ‘anaia nagusia’ den
Aiete Ikastetxe Nagusiak egiten
duen bezala.

Amaieran, Jaizkibeleko dekanok,
Victoria Fons-ek, esan zuen, ikasleek
bisita gidatuak prestatuak zituztela
eraikina erakusteko, gaztelaniaz
nahiz euskaraz, alde historikoa eta
baita eraikin berria ezagutarazteko.

Gero koktel bat eskaini zen terrazan
Donostiako badiari begira,
Musikeneko ikasleek jazz
musikarekin laguntzen zuten
bitartean.

Datorren 15ean Jaizkibelek bere
ateak irekiko ditu, Aldama Jauregia,
orain Jaizkibel Ikastetxe Nagusiaren
egoitza, ezagutu nahi duten
donostiar guztiei.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/jaizkibel/](https://opusdei.org/eu-es/article/jaizkibel/) (2026 Mar 10)